

KANALAK

SilenRoom-en komunikazio- eta banaketa-kanalak funtsezkoak dira gure balio-proposamena bezero-segmentu bakoitzera modu eraginkorrean helarazteko. Kanalen estrategia zuzenean lotzen da gure funtsezko bazkideekin, eta horrek proiektua fidagarria bihurtzen du.



MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO BAZKIDEAK

Hezkuntza eta enpresa sektoreak ez dira ohiko kontsumitzaileak; erabakiak hartzeko informazio fidagarria, presentzia profesionala eta komunikazio argia behar dute. Horregatik, gure marka eta produktuaren mezua osotasunez transmititzeko marketing eta komunikazio-enpresek paper estrategikoa jokatzen dute.

Adibidez:


- Astra Comunicación: identitate bisuala, web orriak eta kanpaina digital profesionalak sortzen ditu, eta bezero instituzionalek eskatzen duten seriotasuna bermatzen du (<https://astracomunicacion.com/>).

- Dimensión: esperientzia zabala du marka-kudeaketan eta komunikazio korporatiboan Euskadin (<https://www.dimension.es/>).

Aliantza hauek bezero berriei gure produktuaren berri modu profesionalean transmititzen laguntzen digute, eta gure kanalen bidezko mezularitza fidagarria bihurtzen dute.



PERTZEPZIOA ETA EBALUAZIOA



Kanalen bidezko lehen kontaktuak webgunea, sare sozialak eta aurkezpen profesionalak izango dira, marketin bazkideekin lankidetzan. Bezeroek informazio fidagarria jasoko dute: kasu errealak, aurrekontu-sinpleak, PDF informatiboak eta bideo laburrak, besteak beste.

SEKTORE PUBLIKOKO ALIANTZAK

Hezkuntza-erakundeek eta enpresek instalazio akustikoak ezartzeko maiz administrazioaren laguntza ekonomikoa edo baimen teknikoak behar dituzte. Horregatik, sektore publikoko erakundeek funtsezko rola betetzen dute gure kanalen estrategian:

- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila:**

hezkuntza-zentroetan baldintza akustikoak hobetzeko inbertsio-planak kudeatzen ditu (<https://www.euskadi.eus/hasiera>).

- **Hezkuntza Ministerioa:** Estatu mailan

ekipamendu eta berrikuntza proiektuetarako laguntzak kudeatzen ditu (<https://www.educacionyfp.gob.es/>).

- **SPRI agentzia:** berrikuntza teknologikoaren

garapena finantzatzen laguntzen du, gure digitalizazio-ildoekin bat eginez (<https://www.spri.eus/>).



Erakunde publikoen parte hartzea gure kanalen bidezko hedapena azkartzen du, instalazioen onarpena errazten du eta proiektua eskalagarria bihurtzen du.

EROSKETA ETA ENTREGA

Salmenta zuzena webgunearen bidez egingo da, eta ondoren banaketa-enpresek produktua bezeroari eramango diote. Hezkuntza-zentro eta enpresek aurrekontu pertsonalizatuak eskatu ahal izango dituzte, eta instalazio teknikoa gure taldeak egingo du, sektore publikoko laguntzen bidez prozesua azkartuz.

Salmenta ondorengoa

Bezeroekin harreman iraunkorra mantentzeko, arreta-kanal bat edukiko dugu (email, telefono, web laguntza-atala). Gainera, mantentze-aholkuak, eguneratze teknologikoak eta lehenengo mantentze-zerbitzua doan eskainiko dira, marketing bazkideen laguntzarekin informazioa modu profesionalen transmitituz.

BANAKETA ETA LOGISTIKA ENPRESAK

SilenRoom panelak material delikatuarekin egindako produktu handiak direnez, banaketa egokia gure arrakastaren beste zutabe bat da. Logistika desagokiak produktua kaltetu dezake, entrega atzerapenak eragin edo kostuak handitu. Horregatik banatzaile esperientziadunak behar ditugu.

Db Schenker nazioarteko erreferentia da industria mailako logistikan, eta Espainian hezkuntza-zentro askorekin lan egiten du; hau dela eta, gure produktua segurtasunez eta garaiz entregatzeko aliatu bikaina izango da :

<https://www.dbschenker.com/es-es>

Bestalde, SEUR Logistics-ek biltegiatze profesionala eta entrega azkarrak eskaintzen ditu, eta gure bezeroen eskakizun azkarrei erantzuteko aukera ematen du:

<https://www.seur.com/>

Banaketa enpresa egoki batekin aliantzak osatzeak gure irudi profesionala sendotzen du eta bezeroaren fidagarritasuna hobetzen du.

